

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

815

1937/2019 EBAZPENA, azaroaren 28koa, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Erakunde Sanitario Integratuko Errehabilitazioko atalburu sanitarioaren lanpostu bat (Errehabilitazio traumatologikoa), lehiaketaren bidez betetzeko dei egiten da.

Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIan Errehabilitazioko Osasun Ataleko buru (Errehabilitazio traumatologikoa) lanpostua hutsik dagoenez, Gerentzia Zuzendaritza honek erabaki du lanpostu hori lehiaketa bidez betetzeko deialdi publikoa argitaratzea, arau hauetan ezartzen denari jarraiki: Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko Hirugarren Arau Komuna; Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua; Osasun zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legea; Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, eta Zerbitzuburu eta atalburu medikoen lanpostuak betetzeari buruz Osakidetzako zuzendari nagusiaren 1/2016 Jarraibideak. Hauek dira oinarriak:

OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Estatutarioa, funtzionario edo lan kontratudun finkoa izatea Osakidetzako edozein zentrotan, edo pertsonal estatutario finkoa izatea Osasun Sistema Nazionaleko Erakunde Sanitarioetan, eta A1 lanbide-taldekoa izatea.

b) Medikuntzan lizentziatura eta Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa espezialitatearen titulazioa edukitzea.

c) Gutxienez, 3 urteko lan-esperientzia izatea Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa Fak. Esp. Mediko bezala.

2.– Deialdia argitaratzea.

Ebazpen hau osorik argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA), Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIno intranetan bai eta Osakidetzako zerbitzu-erakunde guztietan ere.

3.– Eskabideak non eta noiz aurkeztu.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIno Pertsonal Zuzendaritzara (Gurutzetako Plaza 12. 48903 Barakaldo) aurkeztu beharko dituzte eskabideak, 15 egun balioduneko epean, ebazpena dagokien Aldizkari Ofizialetan argitaratzen

den azken egunaren biharamunetik aurrera. Halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. Artikuluan ezarritako eran ere aurkeztu ahal izango dira (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea).

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztietan bete eta dokumentatutako curriculum vitaerakin batera Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali beharko dute. Dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- a) NANaren, pasaportearen edo gida-baimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo langile estatutario izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Eskatutako titulazioaren fotokopia konpultsatua (Lanpostu Funtzionalen Dekretuaren arabera).
- d) Egindako zerbitzuen ziurtagiri original eguneratua, deialdia EHAA-n argitaratu zen eguneko kategoria zein den adierazita.
- e) Bete nahi den ataleko kudeaketari buruzko txosten proiektua.
- f) Meritu baloragarri guztien fotokopia konpultsatua.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazi den bezala egiaztatzea CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala egiaztatuta dauden guztiak, nahiz eta izangaiak eskabidean adierazi behar duen hori horrela dela.

4.– Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, horren bidez aginduko du Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian eta Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko intranetean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den azken egunaren biharamunetik hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko, edo/eta hala badagokio, eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

5.– Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

Erreklamazioetarako edo/eta eskabideak zuzentzeko epea amaituta, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko zuzendari gerentearen Ebazpen baten bidez, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian eta Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko intranetean.

6.– Balorazio Batzordea.

Balorazio Batzordea bat osatuko da; epaimahaiburua Zuzendari Medikoa izango da, eta epaimahaikideak honako hauek: zuzendariorde medikoa, Pertsonaleko zuzendariordea edo, hala badagokio, Pertsonaleko zuzendaria (idazkari izango dena, ahots eta botoarekin) era hiru kide, horietako bat IVAPek izendatua. Azken hiru horiek izangaiei eskatutako titulazioa eta espezialitatea izan beharko dute; eta horrez gain, estatupeko langile finkoak, karrerako funtzionarioak edo lan-kontratudun finkoak izan, eta deitutako lanpostuaren hierarkia-maila bera edo handiagoa duen lanpostua izan beharko dute.

Balorazio Batzordea osatzeko orduan, emakume eta gizonen arteko oreka-printzipioari jarraituko zaio, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoaren

arabera, beti ere, baldintzek hala ahalbidetzen badute. Batzordearen osaera orekatutzat joko da, sexu bakoitzaren presentzia gutxienez ehuneko berrogeia denean.

Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratuko da.

Balorazio Batzordeko kideek abstenitu egin beharko dute Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua jasotako kasuaren batean badaude. Kasu horiek direla kausa, interesdunek errekusatzea abiarazi dezakete edozein unetan, aipatu legearen 24. artikulua ezarritakoari jarraiki.

Balorazio Batzordeko kide guztiek nor bere izenean parte hartzen dute, ahots eta botoarekin, eta erabakiak boto-gehiengoz hartu, eta aktan jasoko.

7.– Izangaiei deitzea.

Proiektua defendatzeko, banakako jakinarazpena egingo zaie izangaiei, gutxienez, 10 egun aurretik. Jakinarazpenean jasoko dira eguna, tokia eta ordua proiektua jende-aurrean defendatzeko.

Proiektuan defentsa publikoetako egutegia Osakidetzako web-orrian argitaratuko da.

Balorazio Batzordeak proiektuen defentsa publikoaren aurretik egiaztatu beharko du izangaiek bete beharreko baldintzak betetzen dituztela, eta ez dagoela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 23. eta 24. artikuluetan jasotako abstentzio edo errekusatze-arrazoirik.

8.– Hautatzeko prozedura.

Balorazio Batzordeak dokumentazioa baloratu behar du, betiere hautagaiek behar den epean eta moduan aurkeztu badute.

Ezingo dira baloratu, inolaz ere, Ebazpen hau dagokien Aldizkari Ofizialetan argitaratzen den azken egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta ziurtatu ez direnak.

Ondoko eranskinean, hautaketa-prozesu honi aplikatu beharreko meritu-baremoa jasotzen da. Gehienezko puntuazioa 66 puntu dira, honela banatzen direnak:

- Proiektua eta defentsa (gehienez 30 puntu).
- Merituen balorazioa (gehienez 30 puntu).
- Euskararen ezagutza (gehienez 6 puntu).

Prozedura bi fasetan garatuko da:

A) Proiektuaren banakako aurkezpena eta jendaurreko elkarrizketa. Izangai bakoitzari deialdiaren oinarrien arabeko puntuazioa emango zaio.

B) Merituen balorazioa, deialdiaren oinarrien arabera, banakako balorazio eta puntuazioarekin.

Gutxienez, prozesu osoan 33 puntu lortu beharko dira lanpostuaz jabetu ahal izateko, eta 15 puntu lortu beharko dira, gutxienez, proiektuaren balorazioan eta haren defentsan.

Prozedura osoa aktan jasoko da.

9.– Prozeduraren ebazpena.

Prozedura bi fasetan ebatziko da:

A) Balorazio Batzordearen proposamen ESIko Gerentzia Zuzendaritzari puntu gehien atera dituen izangaiaren alde, edo, hala badagokio, hornitzeko deialdia bete gabe uzteko proposamena.

Proposamena Balorazio Batzordeko kide guztiek sinatu beharko dute, desglosatu egin beharko dira baremoko atal bakoitzean lortutako puntuak, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian eta Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko intranetean argitaratuko dira.

B) Gerentzia Zuzendaritzak Ebazpena emango du, eta bertan:

B.1.– Balorazio Batzordea proposatutako izangaia izendatuko da. Aukeratutako pertsonak lanpostuari uko eginez gero, hurrengo puntuaziorik onena lortu duen pertsona izendatu ahal izango da, baldin eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen baditu.

B.2.– Deialdia bete gabe utzi ahal izango da arrazoi hauengatik:

- Izangairik ez aurkezlea.
- Izangaiek betekizunak ez betetzea.
- Izangaiek gutxieneko puntuazioa ez lortzea.

Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA), Osakidetza–Euskal osasun zerbitzuko web-orrian eta Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko intranetean argitaratuko da.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzen den hurrengo egunetik hilabeteko epean.

10.– Esleipenaren ondorioak.

Izendapen Ebazpenak ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzen denetik, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

Euskadiko antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legearen 28 ataleko 3. arauaren 8. puntuan xedatutakoaren arabera, Burutzako lanpostu funtzionalek lau urteko eperako izendapen tenporala eduki dezakete; lau urteko izendapen hori luza daiteke arau honetan ezarritakoaren arabera.

11.– Ebazpen honen aurkako errekurtsuak.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, ebazpen hau dagokien Aldizkari Ofizialetan argitaratzen den azken egunaren biharamunetik hilabeteko epean.

Barakaldo, 2019ko azaroaren 28a.

Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko zuzendari gerentea,
SANTIAGO RABANAL RETOLAZA.

ERANSKINA

Merituen baremoa (gehienez 66 puntu)

Merituen balorazioak hurrengo faseak edukiko ditu:

I.– Proiektua eta bere defentsa (gehienez 30 puntu).

Fase honen oinarria da balorazio batzordeko kalifikatzailearen aurrean dagokion Atalaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko jendaurreko azalpena, eta izangaiarekin elkarrizketa egitea.

Fase honen puntuazioa bi partetan banatzen da:

a) Atal kudeatzeko Memoria Proiektuaren balorazioa (15 puntu gehienez).

Kudeaketako Memoria Proiektuak, gutxienez, arlo hauek garatuko ditu:

a.1.– Antolamendu eta kudeaketa arloa (gehienez 3 puntu):

Atalaren organigrama, batetik, buruzagitza-lanpostuaren funtzioak eta, bestetik, hari atxikitako gainontzeko lanpostuen funtzioak adierazita. Atalaren loturak ESiko beste atal/zerbitzuekin.

Ataleko buruzagitzaren kudeaketa-plana, antolamendu-helburuak definituta, hobekuntzako arloak detektatu eta aztertuta, eta horiek lortzeko behar diren neurri egokiak identifikatuta. Eta horrekin batera, esleitutako giza baliabideak eta ekonomikoak eraginkortasunez erabiltzeko konpromiso edo plana.

a.2.– Asistentziari buruzko arloa (gehienez 10 puntu).

Zerbitzu asistentzialen zorroaren deskribapena.

Adierazle eta helburu asistentzialak ezartzea, horien jarraipena eta ebaluazioa etengabe egiteko sistemarekin batera.

a.3.– Irakaskuntza, ikerkuntza eta berrikuntza arloak (gehienez 2 puntu):

Ataleko irakaskuntza, eta ikerkuntza planifikatzeko proposamena.

b) Memoriaren ahozko azalpena Balorazio Batzordearen aurrean (15 puntu gehienez).

Proiektua defendatzeko orduan, argitasuna eta zehaztasuna baloratuko dira, bai eta haren punturik nabarmenenak azaltzeko gaitasuna ere.

II.– Merituen balorazioa (gehienez 30 puntu). Puntuazioa honela banatuko da:

II.1.– Lan esperientzia (gehienez 13 puntu):

– Dagokion espezialitatean fakultatibo giza zerbitzu eman duen hilabete bakoitzeko: 0,0500 puntu.

– Dagokion espezialitatean atalburu giza jardun duen hilabete bakoitzeko: 0,0750 puntu.

– Dagokion espezialitatean zerbitzuburu giza jardun duen hilabete bakoitzeko: 0,1000 puntu.

– Administrazio Sanitario Publikoko Zuzendaritza-kargu edo zuzendariorde mediko gisa jardun duen hilabete bakoitzeko: 0,1000 puntu.

Kontuan hartuko dira, lan-esperientzia gisa, Osakidetzako, Gizarte Segurantzako eta autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetako osasuneko zerbitzu-erakundeetan edo edozein

administrazio publikotan emandako zerbitzuak, bai eta Europar Batasuneko beste estatuetakoa sare publikoko zerbitzu sanitarioetan emandakoak ere.

Zenbaketa osoa lan egindako egun naturaletan oinarrituta egingo da, eta baztertu egingo dira hilabetetik beherako hondarrak. Kontaketarako, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da hilabetetzat.

II.2.– Prestakuntza irakaskuntza eta ezagutzaren hedapena (gehienez 17 puntu).

Ikastaroen ziurtagirietan kreditu kopurua bakarrik agertzen denean, puntuazioa 0,1000 puntukoa izango da kreditu bakoitzeko.

II.2.1.– Kudeaketa arloko trebakuntza (gehienez 3 puntu).

Osasun-kudeaketarekin lotutako ikastaro bakoitzeko, iraupenaren arabera:

20-30 ordu: 0,2000 puntu.

31-50 ordu: 0,3000 puntu.

51-100 ordu: 0,4000 puntu.

101-200 ordu: 0,5000 puntu.

200 ordutik gora: 1,2500 puntu.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek, eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkartze zientifikoek emandako eta ziurtatuko ikastaroak baloratu egingo dira, baita edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera eman eta ziurtatutako ikastaroak ere, betiere titulazio ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

II.2.2.– Espezialitateko etengabeko prestakuntza (gehienez 3 puntu).

Dagokion lanpostuaren espezialitatearekin lotutako ikastaro bakoitzeko iraupenaren arabera:

20-30 ordu: 0,2000 puntu.

31-50 ordu: 0,3000 puntu.

51-100 ordu: 0,4000 puntu.

101-200 ordu: 0,5000 puntu.

200 ordutik gora: 1,2500 puntu.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek, eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkartze zientifikoek emandako eta ziurtatuko ikastaroak baloratu egingo dira, baita edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera eman eta ziurtatutako ikastaroak ere, betiere titulazio ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

II.2.3.– Gradu-ondoko prestakuntza (gehienez 5 puntu):

Doktorea: 3,0000 puntu.

Cum laude doktorea: 4,0000 puntu.

Gradu ondoko masterra: 2,0000 puntu.

Unibertsitate aditua edo espezialista: 1,0000 puntu.

Ikertzeko nahikotasuna edo diploma ikasketa aurreratuetan: 1,0000 puntu.

Doktoretza ikastaroak: doktoreak ikastaroetako bikain edo ohorezko matrikula bakoitzeko (gehienez 10 ikastaro): 0,1000 puntu.

Ez dira baloratuko doktoretza-ikastaroak, baldin eta hauetako bat lortzeko balio izan badute: doktore titulua, ikertzeko nahikotasuna edo ikasketa aurreratuetako diploma.

II.2.4.– Jarduera zientifikoa (gehienez 3 puntu).

Dagokion espezialitatearekin lotutako lan zientifikoak argitaratzeagatik, txostenak edo komunikazioak aurkezteagatik, eta hitzaldiak edo mahai-inguruak egiteagatik:

Eskualdeko txosten bakoitzeko: 0, 2500 puntu.

Estatuko txosten bakoitzeko: 1,0000 puntu.

Nazioarteko txosten bakoitzeko: 1,5000 puntu.

Eskualdeko ahozko komunikazio edo poster bakoitzeko: 0,1500 puntu.

Estatuko ahozko komunikazio edo poster bakoitzeko: 0,6000 puntu.

Nazioarteko ahozko komunikazio edo poster bakoitzeko: 1,0000 puntu.

Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,2000 puntu.

Estatuko mahai-inguru bakoitzeko: 0,7500 puntu.

Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 1,2500 puntu.

Argitalpen bakoitzeko (lehengo egilea): 1,0000 puntu.

Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5000 puntu.

Liburu bakoitzeko (lehengo egilea): 2,0000 puntu.

Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): 1,0000 puntu.

Kapitulu bakoitzeko (lehengo egilea): 1,0000 puntu.

Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5000 puntu.

Tesina egiteagatik: 1,5000 puntu.

II.2.5.– Irakaskuntzako jarduerak (gehienez 3 puntu).

Medikuntza Fakultateko katedraduna, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko) 1,0000 puntu.

Medikuntza Fakultateko irakasle titularra, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,5000 puntu.

Medikuntza Fakultateko irakasle elkartua, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,2500 puntu.

Egoiliarren irakaskuntzarako tutore akreditatua, dagokion espezialitatean (organo eskudunak emandako izendapen-urte bakoitzeko): 0,5000 puntu.

Irakaskuntza, etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan (ordu bakoitzeko): 0,0500 puntu.

III.– Euskararen ezagutza (gehienez 6 puntu).

Euskararen erabilera Osakidetza normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, eta berau gartzen duten arauak, xedatukoaren arabera baloratuko da.